



ALDEZ AURREKO KONTSULTA AZAROAREN 27KO 33/2013 FORU ARAUA, PERTSONA FISIKOEN ERRENTAREN GAINEKO ZERGARENA, ALDATZEKO FORU ARAU AURREPROIEKTUARI BURUZ.

29/2017 Foru Dekretuaren I. eranskinaren 9. artikulua xedatutakoaren arabera (29/2017 Foru Dekretua, maiatzaren 23koa, zeinaren bidez onesten baitira xedapen orokorrak egiteko prozedura eta araugintza teknikako jarraibideak), eta herritarrek araugintzako xedapenak egiteko prozeduran izan behar duten parte hartzea hobetzearren, aldez aurreko kontsulta bat gauzatu nahi da, goiburuan adierazitako aurreproiektua egiteko, jakitearren zer iritzi duten herritarrek eta egitekoa den arauak eragin ahal dien erakunde ordezkagarritasun handienekoek honako hauei buruz:

- a) Ekimenaren bidez konpondu nahi diren arazoak,
- b) Onartu nahi den arauaren beharra eta egokitasuna,
- c) Arauaren helburuak,
- d) Aukera ordezkoak, araugintzazkoak edo araugintzaz bestekoak.

Aurrekoa betez, honako kontsulta hau planteatzen da, beren iritzia eskatzeko pertsona fisikoek errentaren gaineko zergaren zenbait alderdiri buruzko arau esparrua ezarri nahi duen etorkizuneko xedapenaren eragina jaso lezaketen herritarrei eta antolakunde ordezkatzailerei.

Herritar, erakunde zein elkarteek, egokia baderitzote, galdera sorta honetan planteatutako alderdiei buruz duten iritzia adierazi ahal izango dute, abuztuaren 10era arte, *aurrezkontsultak@araba.eus* helbide elektronikoko postontziaren bidez.

AURREKARIAK	33/2013 Foru Araua, azaroaren 27koa, pertsona fisikoek errentaren gaineko zergarena.
--------------------	--



KONPONDU NAHI DIREN ARAZOAK	Beherago aipatzen diren helburuak lortu nahi dira.
ONESTEKO BEHARRA ETA EGOKITASUNA	Aldaketa beharrezkoa da asmotan hartutako helburuak lortzeko.
HELBURUAK	Errentaren gaineko zergaren araudia nabaritutako beharrianetara moldatzea.
EGON DAITEZKEEN BESTELAKO AUKERAK (ARAUGINTZAZKOAK ETA ARAUGINTZAZ BESTEKOAK)	Oraingo hau araugintza aukerarik egokiena dela uste da.